

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

#EMAKUMEOKLIMA Adierazpenaren aldeko atxikimenduek gora jarraitzen dute

Politikariak, teknikariak eta elkarteen ordezkariak, 130 sinatzaileen artean

Osteguna, 2018.eko azaroak 22

Foru Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak urriaren 15 eta 16an Iruñean antolatutako [Nafarroa 2018 Emakumeak eta Klima Aldaketa Topaketaren](#) lehen saioan 40 emakume politikarik landu eta adostutako [#EMAKUMEOKLIMA Adierazpenaren](#) aldeko atxikimenduek gora jarraitzen dute.



Joan den urrian egindako topaketaren une bat.

Hartara, agiria Nafarroako Parlamentuan eztabaidatu zen urriaren 15eko arratsaldeko saioan, eta bertan, Nafarroako eta beste autonomia-erkidego batzuetako (Madril, Euskadi, Extremadura, Aragoi, Valentzia, Katalunia eta Balear Uharteak) emakume parlamentariak, kontseilariak eta zuzendari nagusiak bost lantaldeetan banatu eta #EMAKUMEOKLIMA manifestuaren bukaerako testua adostu zuten.

Horien artean izan ziren Nafarroako Gobernuko bost emakume kontseilariak; foru Exekutiboko, Nafarroako Berdintasunerako Institutuko eta beste erakunde publiko batzuetako zuzendari nagusiak eta zuzendari kudeatzaileak diren emakumeak; UPN, PSN, Podemos, EHBildu eta Geroa Bai alderdietako emakume parlamentariak eta Iruñea, Tuter, Atarrabia, Egues, Faltzes, Fitero, Ameskoa, Arantza, Artzi eta Gesalazko udalen ordezkariak.

Emakumeek klima-aldaketari buruz egindako ekarpenen aldeko konpromisoa

Emakumeek klima-aldaketaren arloan egindako ekarpenak bistaratu, aitortu eta bultzatzea da Adierazpen honen helburua. Horretarako, emakumeek ahalduntzea, hezkuntza, osasuna, gizarte-politikak eta enplegu-aukera berriak gisako esparruetatik abiatuta, arazo honen aurrean duten eginkizuna, plangintza, kudeaketa eta ekintza eta eginkizuna sustatzeko aholku eta gomendio zehatzak bildu dira manifestuan.

Nafarroako Parlamentuan onartu ondoren, adierazpena jendaurrean

aurkeztu eta irakurri zen Baluarten, Nafarroa 2018 Emakumeak eta Klima Aldaketa Topaketaren hilaren 16ko saioan, eta harez geroztik, esparru guztietako pertsonen atxikimenduak jasotzen jarraitu du; 130 guztira, gaurdaino.

Zehazkiago esanda, esfera publikotik, hainbat emakumeren atxikimenduak nabarmendu behar dira; hala nola, Tafalla, Antsoain, Berriozar, Baztan, Agoitz, Espartza Zaraitzu, Noain (Elotzibar), Beintza-Labaien, Lerin, Lesaka, Ezkabarte, Orkoien eta Obanosko udaletako politikariak zein teknikariak; elkargo profesionaletakoak, emakumeen kolektiboetakoak (Ecofim, Urbanas, Batera 2030, Andre Mari, Asocolon, Bizikume), beste erakunde mota batzuetakoak (CCCP, IPES, Ultzama 2013, TESOS, Urbizi), enpresetakoak (Aditech, Acciona), mankomunitateetakoak (Irati, Izarbeibar) eta partzuergoetakoak (Erdialdea), baita pertsona independenteak ere.

Wegunearen bidez nahiz NILSAn edo NASUVINSAn atxikitze gonbidapena

Sinatzaileek agiria partekatu eta izenpetzeko gonbita luzatu diete “politika publikoak zehaztu eta gauzatzeko dituztenei; gobernuari, toki erakundeei, nazioarteko erakundeei, pertsonal akademikoari, enpresei eta gizarte zibilari, baita egokitzen duten pertsona guztiei”, Topaketan egindako lanari sostengua eman diezaioten.

Adierazpena wegunean [kontsultatu eta sinatu](#) ahal da, eta eskuz izenpetu nahi izanez gero, NASUVINSA (San Jorge Etorbidea 8, behea) eta NILSA (Barañain Etorbidea, 22) sozietate publikoek Iruñean dituzten bulegoetara joan daiteke.